

ELKANOREN JANTZIAK GAURKOTUZ

Marinel getariarraren mundu biran inspiratutako arropa bilduma osatu du Oihane Pardok

 **JENDARTEA** / Ainara Lertxundi

«Elkano, munduari buelta emateko arropa bilduma» osatu du Oihane Pardok, Amarenak marka donostiarraren sustatzaileak. 16 piezaz osatuta egongo da, Getariako marinelaengan eta itsasoari lotutako beste lanbide batzuetan inspiratua. Proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko GAUR8 Pardorekin bildu da bere tailerrean.

seinu guztiak ohiko euskal janzki eta elementuetan inspiratuta daude. Jantzi horien jatorrizko patroia eta diseinuetan oinarritzen gara, eta gaur egungo gustuetara moldatuta berritzen ditugu. Honela, gure kulturaren zati hau bizirik

tan oinarritzen gara, eta gaur egungo gustuetara moldatuta berritzen ditugu. Honela, gure kulturaren zati hau bizirik

Shanghaitik bueltan, Oihane Pardo Amarenak moda enpresa sortu zuen 2016an euskal jantzi tradizionalak berreskuratu eta modernizateko asmotan.
Jon URBE / FOKU

Amonaren kaitua berreskuratu, gaurkotu eta jantzi honen historia eta erabilera bultzatu zituen Oihane Pardok Amarenak moda marka sortu zuenean 2016an. Etapa berri baten hasiera izan hura, arkitekto gisa Shanghain lan egindako urteak atzean utzita. Kaikuaren ondotik, Erdi Aroko euskal emakumeen irudiekin egindako Burukoak kamiseta bilduma, XVI. mendeko euskal bordatuak gaurkotu eta beste hainbat proiektu egin zituen. Bere azken egitasmoa, Juan Sebastian Elkano marinel getariarraren garaiko Euskal Herriko janzkera tradizionala ikertu eta freskatzeara. Donostiako Tabakalerako 4. solairuan duen tailerraren ateak zabaltzeko GAUR8ri azken proiektu honi buruz hitz egiteko.

Amarenak marka donostiarraren sortzaileak hiru urte daramatza Elkano 500 Fundazioarekin elkarlanean, XVI. mendeko marinelek eta itsasoari lotutako beste lanbide batzuek, hala nola balea ehizari edo arrain saltzaileek, zeramaten janzkeran inspiratutako moda bilduma osatzeko.

2019an hasi ziren Elkano lehene mundu bira egin zuteneko 500. urteurrena gogoratzeko ekitaldiak eta datorren urtean amaitutzat emango du bere ibilbidea Elkano Fundazioak, 1522ko irailaren 6an iritsi baitzen Elkano Sanlúcar de Barramedara «Victoria» naon itsasoratu zenetik hiru urtera.

Amarenak-en web orrialdeak hitz hauekin laburbiltzen du Pardok sustatu zuen markaren filosofia: «Euskal tradizioetik gaur egunera. Gure di-

eta erabilgarri egotea lortzen dugu. Ez dugu denboraldietan sinesten. Ez dugu joera pasakorretan sinesten. Ez dugu soilik moda egiten. Moda lokala, unibertsala eta atemporal dela uste dugu». Bide horri eutsiz, Elkanoren mundu biran erabat murgildu da Pardo.

«Historiaren pasarte oso interesgarria iruditu zitzaidan. Gainera, mundu mailan oso ezezaguna den gertaera bat da. Euskal Herritik kanpo, baita estatu mailan ere, askok pentsatzen dute Magallanes izan zela munduari lehen bira eman ziona eta Elkanoren izena bigarren maila batean gelditzen da. Horrek asko harritu ninduen proiektuarekin hasi nintzenean», nabarmendu du.

Garaia buruzko dokumentazio lana ez da batere erraza izan, «irudi gutxi baitaude». Hiru urte hauek Elkanoren garaian itsas munduarekin loturiko ogibideak eta janzkera mota ikertzen eman ditu.

Oso lagungarria izan zaizkio Red Bay-n aurkitutako aztarnak. Kanadan kokatutako arrantzale herrixka hau euskal baleazaleen kokaleku nagusia izan zen. Urtero 15 itsasontzi eta 600 arrantzale iristen ziren Euskal Herritik Belle Isle itsasartera, Ternua uhartearen eta Labrador penintsularen artean. 1565ean, ekaitz baten ondorioz, «San Juan» baleontzia hondoratu egin zen Saddle uhartetik gertu. Inguruko uretan zenbait txalupa aurkitu dituzte. Saddlen 142 baleazale euskaldunen gorpuzkiak daude.

Selma Huxley ikertzaile anglo-kanadarrak Red Bay eta XVI. mendeko euskal baleazaleen historia ikertu zituen.



Huxleyren lana informazio iturri garrantzitsua izan da Pardorentzat. Era berean, Al-baola itsas museoaz, Donos-tiako Untzi Museoak argitara-tu zuen “Euskal baleazaleak. Berebiziko historia irudiak eta aztarnak” liburuaz, Elena Tuduri tolosarrak (1893-1979) euskal jantziari buruz eginda-ko ikerketa etnografikoaz –batez ere karrera bukaerarako idatzi zuen lana, “El traje y otros asuntos de etnografia vasca (1920)”–, eta Elkano Fundazioak egindako irudi galeriaz baliatu da. Garaiko koadroak ere iturri gisa erabi-li ditu.

FUSIO GARAIA

«XVI. mendea mugimendu askoko mendea izan zen. Gi-zakia mundua espero zuten baino handiagoa zela kontu-ratu zen. Aurrerapen teknolo-giko eta geografikoei esker, kultura berriak, egiteko modu berriak eta beste herrialde ba-tzuetako moda eta ohiturak ezagutu ahal izan zituzten; horiek ezagutzeko kuriosita-tea piztu zitzairen. Fusio garai bat izan zen. Ordura arte, Eus-kal Herria nahiko isolatuta zegoen, baina itsas merkatarit-zak zabalkundea ekarri zuen, harremanak Euskal Herriko mugetatik harago zabaldu zi-ren eta horrek guztiak eragin zuzena izan zuen janzkeran. Pariseko edo Ingalaterrako modaren eragina sumatzen hasi zen. Euskal Herriaren janzkera bereizgarrian galera gertatu zen nahasketa horren ondorioz». Aldaketak goi mailako klaseetan gertatu zi-ren, aristokrazian eta gortean alegia, janzkera estatusarekin eta diruarekin lotuta baitze-goen.

Gizon eta emakumeentzako hamasei piezaz osatuta egon-

«Fusio garai bat izan zen. Itsas merkataritzak zabalkundea ekarri zuen, harremanak Euskal Herriko mugetatik harago zabaldu ziren eta horrek eragina izan zuen janzkeran»

Prototipo bana eta pieza batzuen ekoizpena finantzatzeko, crowdfunding kanpaina abiarazi zuen Goteo.org plataforman, Piztu Meta programaren barruan

go da bilduma. «Gaur egun jantzi daitezkeen arropak daude: kamisetak, galtzak, gonak, espartinak, txapelak... gustu guztietarako. Gure as-moa prototipo bana egitea da. Ekoizpena egiterakoan jendearen parte-hartzea eta iritzia nahi genituen, prototi-po horien artean zein ikusten duen jantzigarriagoa jakiteko. Helburua jendeak kalean arropa horiek erabiltzea da eta, bide batez, Euskal Herri-ko historia kontatzea, oraingo honetan Elkanoren garaia», azaldu du Pardok.

CROWDFUNDING ETA ELKARLANA

Prototipo bana eta pieza ba-tzuen ekoizpena finantzatze-ko, crowdfunding kanpaina abiarazi zuen Goteo.org pla-taforman, Gipuzkoako Foru

Aldundiaren Piztu Meta pro-gramaren barruan.

Irailaren 29tik azaroaren 7ra bitartean proiektua ba-bestu duten pertsonak bildu-maren diseinu prozesuan parte hartu ahal izan zuten, ehunak eta koloreak hauta-tuz, baita azkenean salmenta-rako ekoitziko diren jantziak aukeratuz ere.

Bidaia honetan, modaren sektoreko artisau, diseina-tzaile eta enpresa erreferente-ak izan ditu Pardok bidela-gun, hala nola Boinas Elosegui (Tolosa), Capas Sese-ña (Madril), Gorka Gonzalez kapelagilea (Donostia), Lëlë Printsestanpatu diseinatzaile (Donostia), Re_ by Barbara Leon zapata diseinatzailea (Sevilla), Clara Virgillipatro-nista eta diseinatzaileak (Bar-



Burukoak kamiseta bilduma erakusten. Jon URBE | FOKU



tzelona), Zapatariko zapatar-
riak (Nafarroa) eta Espartin
abarketa fabrika (Zumaia).

«Txapel bat egin behar ba-
dugu, Boinas Elosegurekin
egin behar dugu, nola ez! Mo-
daren munduan erreferente
diren pertsonekin elkarlana
aberasgarria eta garrantzi-
tsua iruditzen zait. Egia esan,
oso harrera ona izan zuen
proposamenak eta horrek as-
ko animatu ninduen, hasiera-
tik aurpegi onez ikusi zuten
nik botatako ideia. Bizitzen
ari garen pandemiarekin eta
itxialdiaren ondoren, gauza
politak egiteko gogoarekin
gaude denok», gaineratu du
Pardok.

Asmoa, bilduma osoa dato-
rren urteko irailerako prest
egotea da, Elkano eta bere
itsasgizonak Sanlucar de Ba-
rramedara iritsi zireneko hi-
labetean, hain zuzen ere.

OIHALEN GARRANTZIA

«Hitz batean deskribatu be-
harko banu espedizio hura,
gogorra izan zela esango nuke.

Egun, abentura gisa ikusten
dugu itsasgizon horiek mun-
duari bira eman izana. Pentsa
zer izan behar duen Ozeano
Barearen erdian egotea, jakin
gabe noiz ikusiko duzun lurra
edo ikusiko ote duzun, urik
eta janaririk gabe. Egoera eta
bizipen benetan gogorrak».

XVI. mendea ikertzen, oiha-
lei ematen zitzaaien garrantzia
nabarmetzen du Pardok.
«Egun arropari ez diogu hain-
besteko balioa ematen. Espe-
dizioa hasi zutenean, ez zeki-
ten noraino iritsiko ziren, ezta
zein herrialdetara ere. Ez ze-
goen amankomuneko mone-
tarik; beraz, trukeak egin be-

**Adjektibo batekin deskribatu beharko balu
espedizio hura, «gogorra» izan zela esango luke
nahiz eta «egun abentura gisa ikusten dugun
itsasgizon horiek munduari bira eman izana»**

**«Amarenak proiektuarekin hasi nintzenean,
harrituta gelditu nintzen zein aberatsak eta
ezezagunak diren euskal oihalak», adierazi du**

Donostiako Tabakalerako 4.
solairuan duen tailerrean
lanean.
Jon URBE / FOKU

har zituzten eta horiek egite-
ko erabili zuten gauzetariko
bat oihala zen. Gaur egungo
diruaren balioa zuen».

Euskal Herriko historia jan-
tzi tradizionalen bidez iker-
tzeak zer ematen dion galde-
tuta, Txinan bizitzen egon zen
garaia dakar gogora Pardok.

«Kulturak gizartearen haz-
kundean eta eboluzioan duen
garrantziaz ohartu nintzen
bertan. Amarenak markak
euskal kultura plazaratu, bul-
tzatu eta babestea du helburu.
Aldi berean, oso pertsona ku-
rrosoa naiz. Bilduma bakoitza
osatzeko egiten dudan ikerke-
ta lanarekin asko disfrutatzen
dut; ikerlariarekin eta historiala-
riekin hitz egiten, museotara
joaten, idatziak irakurtzen...
Oso interesgarria iruditzen
zait eta ilusio handia egiten
dit ikertutakoa eta ikasitakoa
jendearekin partekatzea mo-
daren bidez», azaldu du.

ALBISUREN LANA GOGOAN

«Amarenak proiektuarekin
hasi nintzenean, harrituta

gelditu nintzen zein abera-
tsak eta ezezagunak diren
euskal oihalak. Baserri giro-
an, arropa etxean egiten zen.
Gaur egun izan ditzakegun
adina galtza edo gona ez zi-
tuztenez, oihala puskatzen
zenean josi eta josi egiten zu-
ten. Ia desagertu arte berrera-
biltzen zuten. Eta jada janzte-
ko balio ez zutenean, trapuak
egiteko erabiltzen zuten oihal
zatia. Arrazoi horregatik, bai-
ta gerraren eraginez ere, ma-
terial gutxi gelditzen dira»,
aipatu du.

Horren harira, Pardok Ane
Albisuren lana nabarmetzen
du. Aktore, filologo eta euska-
ra irakasle donostiarrak
2006an euskal jantziei buruz
«Atundu. XXI. menderako
proposamena» argitaratu
zuen. Liburu bat izateaz gain,
Atundu egitasmo bat ere ba-
da. Albisuk berak hainbat el-
karrizketatan azaldu duenez,
«bi pertsonak soineko bera
jantzi dezakete, baina oso ez-
berdina izan daiteke janzteko
eraren arabera», horregatik,

bere hitzetan, «jantziari baino janzkerari eman behar zaio garrantzia». Bere ustez, gainera, euskal kulturaren gai askori buruz, esaterako musikari, bertsolaritzari edo dantzari buruz, ikerketa asko dauden bitartean, «jantziarena ez da gehiegi landu».

Pardoren hitzetan, «oso zabaldua dago moda aldizkari batean hiru argazki eder argitaratzea besterik ez dela. Jantzi baten atzean dagoen lan guztia ez da behar bezala baloratzen. Marka ospetsuenek gizonen izena dute, baina modaren alorrean lan egiten duten gehienak emakumeak dira. Orain arte, moda emakumeen 'gauza' bat izango baltz bezala ikusia izan da eta horregatik agian ez da aintzat hartu».

Kaikua edo burukoa Euskal Herriarekin identifikatu egiten dira. Baina egungo modak zerbait bereizgarria utziko du hurrengo mendeetan?

«Hausnarketa interesgarria da. Ez nuke jakingo esaten hemendik 500 urtera Euskal Herriarekin zuzenean identifikagarria izan daitekeen jantzi motaren bat egongo ote den. Agian, jantzi bati buruz baino gehiago estiloaz hitz egin beharko genuke. Moda ziklikoa da, ez da guk uste dugun bezainbeste aldatu. Adibidez, gaur egun eramaten ditugun alkandorak, galtzak edo gonak duela urte asko eramane zirenaren berdinak dira. Baliteke hemendik 500 urtera kaikua edo txapela erabiltzen jarraitzea».

Bost urte dira jada 2016an Amarenak martxan jarri zuela Shanghaitik bueltan. Balantze «baikorra» egiten du Pardok: «Nire hasierako helburua kaikua eguneratzea zen. Amak emanda, amona-

ren kaiku bat erabiltzen nuen beroki gisa. Nazioarteko ekitaldietan berokiari buruz galdetzen zidaten. Amonaren kaikua jubilatzen nuenean, beste bat erostea pentsatu nuen Euskal Herrira egindako bisita batean. Baina amonarenarekin zerikusirik ez zutela ohartu nintzen eta amonaren kopiatzea pentsatu nuen. Lagun batek beti esaten dit proiektu arriskutsuak gogoko ditudala, eta hala da. Publikoaren aldetik harrera ona izan dut, jendeak kalean gure arropa erabiltzen du eta pandemiak bertako produktuak kontsumitzearen gaineko hausnarketa eragin du eta, egia esan, hemengo markentzat hori onuragarria izan da hein batean. *Fast fashion* ho-

«Orain arte egin dudana bildumarik handiena da Elkanorena, eta ilusio gehien eman didana ere bai. Modan erreferente diren pertsonekin elkarlanean aritzea ahalbidetu dit»

Amonaren kaikua «jubilatzen» zuenean, hura kopiatzea erabaki zuen. Geroztik, kaiku berrituak mundu osoko 15 herrialdetako eta 3 kontinentetako pertsonengana iritsi dira

rreren aurrean, hemen egindako eta kalitatezko gauzak, asko iraungo duten horiek, lehenesten hasi da», nabarmendu du.

Pardok berritutako kaikuak mundu osoko hamabost herrialdetako eta hiru kontinentetako pertsonengana iritsi dira jada. Ea bilduma guztien artetik «kuttunen» bat ote

duen galdetuta, erantzuna «oso zaila» dela dio. Dena den, proiektu guztien artetik Elkanoren hau nabarmentzen du, «agian orain esku artean dudalako», aitortu du. Dena den, «orain arte egin dudana bildumarik handiena da eta modan erreferente diren pertsonekin elkarlanean aritzea ahalbidetu dit».

Kaikua izan zen Pardoren lehen proiektua. Euskal kulturak ehun ondare aberats bezain ezezaguna duela jakitun, euskal jantzi tradizionalarekin lotura duten bildumak egiten ditu.
Jon URBE / FOKU

